

{ koaderno } Erika LAGOMA POMBAR

Txerreroa

S ardinak eta Mielotxinak erre ditugun honetan, erregosi zaizkigu barrenak. Etbk Tolosako inauteriak karnabal nazional izendatu ditu aurten ere, eta zakozaharrek bete dituzte Lesakako karrikak ilunabar-arratsean.

Erre ditugu txarkeriak atzean uzteko asmoz, urte zaharra akabatzearekin helburu berrien zerrendak egiten ditugun bezalaxe. Suak garbitu egiten gaitu, ernaberritu. Nahi zenuke tabakoa birsortzaile izatea, baina sua izanik ere, zerrendan sartu zenuen urtarrilean.

Joaldunek astindu dituzte joareak ama-lurra esnatzeko, momotxorroek egurrezko sardeekin lurra kolpatu dute neguko lozorrotik esna dadin. Gure parajea ez da lozorrotik egon, astebeteko negua izan dugu, hemezortzi gradu maiz, hego haizea. San Juan loreak ikusi nituen aurreko astean.

Ama lurra iratzarri. Batzuei zoru pelbikoa ernatu zaigu inauterietan, ezagutzen ez ditugun kantuak dantzatzuz. Jendarteak dituen arau formalak galtzen omen dira egun hauetan, omen. Nahi ditugu gure buruak mozorrotuta, baina polit.

Merke-zurreko adarrak jantzi nituen buruan, goma-
aparrezkoak, beltzez jantzi, begiak belztu eta ingurua ilundu. Ezpainak gorri. Lepodun kapa. Zortzi eurotan *Maleficent*. Bigarren ardo zurian, lagun batek aurpegi-ratu zidan ez duela balio, eder nengoela. Kokoteraino zegoela, hurrengo urtean berak ere bere burua edertuko duela. Badirela kuadrillak ederrez mozorrotzen direnak: Greziako ederrak, Egiptoko ederrak, 50eko hamarkadako ederrak, 60ko hamarkadako ederrak... hori ez dela inauteria.

Kritika, satira... edo poteatzea, besterik gabe. Orde-na aldatzea, subertsiboa izatea... edo lagunekin kare-tak jantzita ongi pasatzen saiatzea, soilik. Tonu ka-
bernikola batean Loroloroloro... kantatzea telebista

kameraren aurrean. Herrira inauterien esentzia pa-ganoa usaintzera etorri direnen furgoneta astintzea lo dauden bitartean... Dena da inauteri, otsailean egi-ten bada.

Aldatzen dira hierarkiak? Onartzen dira bestela onartuko ez liratekeenak? Edo ez da kanbiatzen ezer?

28 urteko gizonezko bat atxilotu dute Tolosan igan-de gauez, bi emakumeri egin die eraso; horietako bat adinez txikikoa, labana batekin mehatxuak. 37 urte-ko gizonezko batek eraso egin dio adin txikiko ema-kume bati Ibarran. Bi sexu eraso salatu dituzte Azpei-tiko elegante egunean, gizon bat atxilotuta dute. Tolosako zezen plazan protesta ekitaldi bateratua egin da. Txarangek zezentokiari buelta eman ostean, Asanblada Feministako kideek, udal ordezkariak eta inauterietako hainbat eragilek beste itzuli bat eman diote plazari *Indarkeria sexistarik gabeko herri baten alde* eta *Indarkeria matxistari aurre egin* lelopean. Az-peitian bertan behera utzi dituzte karnabalak, ez

Hamasei urte eta malko-guruina apurtuta, ez dezagun negarrik egin esku-hartze profesional eta kirurgiko honen aitzinean. Iñigo Cabacasen hilketa oroitu dugu berriz

gaude festetarako. Erasoen aurrean nola erantzun beharko genukeen, adostasunik ez. Transmititzen dena oso bestelakoa da bi kasuetan.

Hainbat liskar izan dira Tolosan, Tolosan ere bai. Horietako batean Ertzaintzak Foam jaurtigaiak erabili ditu, eta gazte bat larri zauritu du begian, hamasei urte ditu. Hamasei urte eta malko-guruina apurtuta, ez dezagun negarrik egin esku-hartze profesional eta ki-rurgiko honen aitzinean. Iñigo Cabacasen hilketa oroitu dugu berriz. Ertzainak ertzainaz disfrazatuta.

Arrautze, arrautze, zingar arrautze, bat ez bada ber-tze. Zakua dauku ariñe, Matxin santuek egiñe, hau be-tetako leku on batera ailegatuko bagiñe. Inauteri on-doan, Garizuma. •